



**ABALTZISKETA**

## ABALTZISKETAKO UDALEKO ZERBITZU ANITZETAKO OPERARIOA LANPOSTUA EGONKORTZEKO EPAI MAHAIAREN BEHIN BEHINEKO BALORAZIOA

Abaltzisketan , 2023eko apirilaren 24ean,

Bildurik ,

Iñaki Eskisabel Zurututza Jauna , lehendakaria ,

Izaro Gurrutxaga Auzmendi Andrea, epai mahaikidea

Jon Karrera Jauregi Jauna, epai mahaikidea

Martin Iparraguirre Mujika Jauna, epai mahaikidea

Idazkaria:

Nekane Lopetedi Etxeberria, Abaltzisketako udaleko idazkari kontuhartzailea .

### **Kontutan hartuaz :**

**Lehena.**-2022ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran, 2022ko enplegua publiko eskaintzea egitea onartu zen, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera eta 2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen eta Estaduko Aldizkari Ofizialean, 2023ko otsailaren 15ean.

**Bigarrena.**-Hautaketa prozesu horretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta Epaimahai Kalifikatzailearen osaera onartu zen eta 2023eko martxoaren 31eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen .

**Hirugarrena.**-Alegazioak aurkezteko epea iragan ondoren , eta alegaziorik ez da jaso.

**Laugarrena.**-Epaimahaiak , zerbitzu anitzetako operario lanpostua egonkortzeko eskatzen ziren baldintzak hauek zirela :

Baldintza orokorrak : Derrigorrezko bigarren hezkuntza titulua edo baliokidea izatea eta 2.hizkuntz eskakizuna beteta izatea .



## **ABALTZISKETA**

Baldintza espezifikokoak :

- Administrazioan zerbitzu anitzetako operario lanetan 0,33 puntu hileko .
- Abaltzisketako zerbitzu anitzetako operario lana egin izana 0,11 puntu hileko .
- Produktua fitosanitarioen aplikazio titulua izatea 7 puntu
- nekazaritza mekanikoa eta soldaduragutxieenz 80 ordukoa izatea 8 puntu .
- Gidatzeko baimena izatea 5 puntu

Guzti hau kontutan hartuta , epai mahaikidekek **ERABAKI DUTE** :

**LEHENA** .-Epai mahaikideek , aurkeztutako merituen gain begiratu eta aztertu ondoren , erantsitako agirian ikusten den bezala , hautagai bakoitzari bere puntuazioa ematea.

**BIGARRENA**.-Epai mahaiak emandako behin behineko puntuazioa , Abaltzisketako udaleko web orrialdean argitara emango da eta hamar lan egunetan puntuazioa aztertzeko aukera izango da , eta dagokion erreklamazioa aurkezteko , hala bada .

**HIRUGARRENA**.-Denboraldi honetan alegaziorik aurkeztu ezean , behin behineko balorazioa behin betikotzat emango da eta Abaltzisketako alkateari, puntuazioaren arabera zerrenda ordenatuta aurkeztuko zaio .

Eta besterik ezean , bilera amaitutzat ematen da .

Lehendakariak

Idazkariak